



ALKIZAKO UDALA

**UDALBATZARRAK 2023ko URRIAREN 10AN EGINDAKO EZ OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2023ko urriaren 10ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Ana Agesta Echecolonea Alkate ordearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATE ORDEA : Ana Agesta Echecolonea
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Unai Sorarrain Urruzola
Nagore Arizeta Garmendia
Gillermo Otegi Zubillaga
Koldobika Jauregi Zinkunegi.

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Inaki Irazabalbeitia Fernandez

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. 2024 urterako udal Ordenantza Fiskalak eta udal zerbitzuengatikoko tasa eta prezio publikoen ordenantzak onartzea.**
- 2. Alkizako ostatuko sukaldean labe bat hornitzeko kontratuaren esleipena.**
- 3. Alkizako hiri antolamenduko plan orokorra eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari buruzko dokumentuak idazteko lanen esleipena.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

2024 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUENGATIKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA

Ikusirik 2024 ekitaldirako Ordenantza Fiskal eta Tasa eta Prezio Publikoen udal ordenantzak eguneratzeko eta aldatzeko garaia iritsi dela, egindako proposamena hauek izoztearena dela.

Hala ere egutegi fiskala onartu egin behar da, ondorengoa delarik:



ALKIZAKO UDALA

2024 EKITALDIRAKO ZERGA EGUTEGIA

1.- HOBARI ESKAERA:

- 2024 urteko otsailaren 1etik otsailaren 29ra

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

- 2024 urteko maiatzaren 2tik uztailaren 2 arte.

3.- URA TASA:

1. seihilabetea: 2024 urteko irailaren 2tik azaroaren 4ra bitartean.
2. seihilabetea: 2025 urteko otsailaren 1etik apirilaren 1era bitartean.

4.- ZABORREN TASA:

- 1.seihilabetea: 2024 urteko uztailaren 3tik irailaren 3era bitartean.
- 2.seihilabetea: 2025 urteko urtarrilaren 2tik martxoaren 3ra bitartean.

Bestalde, 2022aren amaieran onartu zen 7/2021 Foru Dekretu-Araua, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzen duena. Egokitzapen horrek eragina izan zuen, besteak beste, aipatutako 16/1989 Foru Arauaren 4.3 artikuluan, zerga horretan aplikatu beharreko gehieneko koefizienteei buruzkoan.

Koefiziente horiek urtero eguneratu daitezke Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuei buruzko foru arauen bidez.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 6/2022 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarriak ezartzen ditu, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako indarraldiarekin, sortzapenaren unean lurzoruaren balioari aplikatu beharreko koefizienteen gehieneko zenbatekoak.

Espero izatekoa da datozen urteetan ere gehieneko koefizienteak eguneratu egingo direla, eta horren argitalpen data udala ordenantzaren aldaketa izapidetzen hasi eta gero gertatzea.



ALKIZAKO UDALA

Horregatik, orain proposatzen den aldaketarengatik, saihestu nahi da udalak ordenantza bi aldiz izapidetu behar izatea, gehieneko koefizientea eguneratu izanagatik eta honela alkatea dekretuz ahalbidetzea aldaketa horiek egin ditzan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen 6.artikuluaren aldaketa (eta eranskina) hasieraz onartzea.

BIGARRENA: 2024 urterako egutegi fiskala onartzea.

HIRUGARRENA: Aurreko puntuak aipatzen dituen akordioak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, ondorioztatu daitezken erreklamazioak edo oharren efektuetarako. Horretarako dagokion iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan.

LAUGARRENA.- Hartutako akordioak eta Ordenantzen eta beraien GEHIGARRIEN aldaketak behin-betikoak bihurtuko dira, beste akordio berriren beharrik gabe, informaziorako arauzko epea pasa ondoren inolako erreklamaziorik edo oharrik egin ez balitz. Beraz, 2024 urteko urtarrilaren lehen ipiniko lirateke indarrean Ordenantza Fiskal eta Tasa Publikoen Ordenantza berriak.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKIZAKO OSTATUKO SUKALDEAN LABE BAT HORNITZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Alkizako ostaturako labe berri bat erosteko kontratua esleitzea, aurrekoa oso txikia gelditu da eta.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Alkizako udalak, helburu horretarako hiru aurrekontu eskatu ditu, ondorengoak izanik:

- Euskal Hotz, S.L.
- Maquinaria Astigarraga, S.L..
- MAHI, S.L.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. *HORNIDURA* kontratu txiki baten aurrean.



ALKIZAKO UDALA

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

HORNIDURA kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: Euskal Hotz S.L. enpresari, Alkizako ostatuko sukaldean jartzeko LABE berri bat erosteko kontratua esleitzea 10.265,00€ diru kopuruan (BEZa kanpo), ordainketa **1.0000. 683.933.00.02** kontu sailaren kontura **“Herri ostatua”**.



ALKIZAKO UDALA

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

HIRUGARRENGO PUNTUA

ALKIZAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA ETA INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN PROZEDURARI BURUZKO DOKUMENTUAK IDAZTEKO LANEN ESLEIPENA

Kontuan hartuta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen duela Alkizako Udalaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedurari buruzko dokumentuak idazteko zerbitzu-kontratua izapidetzea.

Udal Zerbitzu Teknikoen txostena aztertu da. Bertan, proiektuaren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dira, eta lizitazioa arautuko duten Baldintza Teknikoen Pleguak egiten dira.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 308. artikulua eta hurrengoetan dioena kontuan hartu dira.

Ikusirik, 642.151.00.01 aurrekontu aplikazioaren kargurako 163.350,00 euroko kreditu atxikipena, hau da, izapidetu beharreko zerbitzu kontratuaren balio zenbatetsia.

Udal honetako Idazkaritzak emandako txosten juridikoa aztertu da.

Kontratu hori arautuko duten administrazio-klausula partikularren agiriak onartu dira.

Udal honetako Kontuhartzaitzak igorritako aldeko fiskalizazioa aztertu da.

2023ko abuztuaren 1ean egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez, aipatutako kontratueterako kontratazio-espedientea onartu zen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 116. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, eta prozedura irekirako deialdia egin zen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 156. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratazio Mahaiak egindako proposamena ikusita, non azaltzen duen eskaintza bakarra aurkeztu dela, hau da, "SOROA ARQUITECTOS S.L.P"-rena, lan hori egiteko gai izanik.

Kontuan hartu da sektore publikoko kontratazioari buruzko araudian jasotako preskripzioak bete direla eta, bestetik, eskaintza ekonomikorik onena



ALKIZAKO UDALA

SOROA ARQUITECTOS S.L.P enpresak aurkeztutakoa dela. Era berean, eskatutako dokumentazioa aurkeztu du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. eta 141. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Ikusirik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, Udalbatza dela kontratazio organo eskuduna.

Kontuan hartuta Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 151. eta 153. artikuluetan xedatutakoa.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA- SOROA ARQUITECTOS S.L.P merkataritza-enpresari esleitzea. Alkizako Udalaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedurari buruzko dokumentuak idazteko zerbitzuen administrazio-kontratua, prozedura irekiaren bidez tramitatua, tramitazio arrunta, 135.000,00 eurokoa, BEZik gabe, eta egikaritze-aldia 14 hilabetekoa (benetako lana).

BIGARRENA.- SOROA ARQUITECTOS S.L.P merkataritza-enpresari kontratu hori formalizatzeko eskatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 153. artikuluan aurreikusten den moduan lizitatzaillei eta hautagaiei esleipen honen jakinarazpena jasotzen zaienetik hamabost egun baliouduneko epean.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau administrazio-espeditentean interesatuei jakinaraztea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 155. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

LAUGARRENA.- Kontratazio honen formalizazioa kontratatzailearen profileen argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

BOSGARRENA.- Alkizako Udaleko aholkulari teknikoa, Eba Erkizia Brion andrea, kontratu honen arduradun izendatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.



ALKIZAKO UDALA

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19:29tan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

